Berrikuntza
eta Kultura
V. Jardunaldia.

Audientzien estimulazio berritzailea



Azaroak 7.
Romo Kultur Etxea.
Getxo.

KARRASKAN

KARRASKAN.ORG

Ikus-entzuleek zein toki hartzen dute kultura eta sorkuntza proiektuetan? Publiko berriak sortzeko espaziorik ba al dago? **Kultura eta sorkuntza eskaria sustatzeko estrategiarik eraginkorrenak zein dira?** Zein betebehar dauka berrikuntzak horretan?

Karraskanek gai horien inguruko hausnarketa proposatzen du, erreferentziazko nazioarteko proiektuetara eta tokiko testuinguruan garatutako jardunbide onen kasuetara gerturatzeko jardunaldi batean.

Kultura eta sorkuntzako publikoekin lan egitearen inguruko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzten begiradak aztertzeko hitzordua izango da, ezinbesteko gaia baita gaur egun bai errotuko diren politika publikoak diseinatzeko, bai funtsezko proiektuak garatzeko.

Egitaraua

09:30 - 09:45 **Ongietorria.**

09:45- 10:00 **Kafea zentzumenekin**
(*networking* dinamika)

10:00 - 10:15 **Ongietorria Roberto Gómez**
de la Iglesiaren eskutik - Karraskaneko presidentea.

10:15 - 11:00 **Inaugurazio mintzaldia**
Anne Torreggianiren eskutik.

11:00 - 11:30 **Mikrofono irekia.**

11:30 - 12:00 **Tokiko testuinguruan**
garatutako esperientziak (I)
Kunarte. Sarean. Buenawista. Libelista.

12:00 - 12:30 **Kafea zentzumenekin.**

12:30 - 13:00 **Tokiko testuinguruan**
garatutako esperientziak (II).
Nondik. Conexiones improbables. Moviltik. Zawp.

13:00 - 13:15 **Mikrofono irekia.**

13:15 - 13:45 **Txostenaren aurkezpena:**
Kultura eta sorkuntza eskaria sustatzeko politika
eta praktiken benchmarkinga (Getxoko kasuari helduz).

13:45 - 14:00 **Mikrofono irekia.**
14:00 - 14:15 **Amaierako kontakizuna.**
14:15 - 16:00 **Bazkaria.**

Anne Torreggiani

The Audience Agency entitatearen sortzailea eta zuzendari nagusia da Anne; arte, museo eta ondarearekiko konpromiso publikoa hartzeko Erresuma Batuko ongintzarako erakunde nazionala da The Audience Agency, eta, hala, irismena, egokitasuna eta erresilientzia sektorean hedatzea ahalbidetzen du. Entitatea 2012an finkatu zen eta orain taldeak honako hauek hartzen ditu barne:
- Datuak aztertzeko Audience Finder zerbitzua, kultura arloko ikus-entzuleen munduko lehen datu base nazionalean oinarritutakoa.
- Konpromiso publikoan espezializatutako berariazko ikerketa eta garapen agentzia.
- Golant Innovation, erresilientzia, eraldaketa digital eta enpresa sozialerako eredu berriak ahalbidetzen dituen agentzia (The Audience Agency entitatearen filiala).
Anne eragin handikoa izan da hiru hamarkadetan zehar, praktikak hobetuz eta kulturaren sektorea aldatzea babestuz, bereziki ikus-entzuleengan zentratutako hurbilketa bultzatzeari eta politika eta praktika garatzeko datuak eta bestelako ebidentziak erabiltzeari dagokienez.

Audiences London eta The Audience Agency entitateen aurretik Erresuma Batuko hainbat kultura erakundetako marketin eta entzuleria zuzendaria izan zen, tartean tokiko erakundeak, antzokiak eta jaialdiak (West Yorkshire Playhouse eta LIFT, besteak beste); ondoren hainbat entitateren aholkulari, erraztaile eta kontseilari gisa ere aritu zen lanean, esaterako Arts Council England, British Council, Europako Batzordea eta Erresuma Batuko hainbat kultura erakunde (The Albany, Graeae, Tamasha, Tate, National Theatre eta Manchester International Festival), baita nazioartean ere.

Publiko estrategia, joerak eta konpromiso publikoen ereduetan espezialista da Anne eta museo eta arte forma guztietan egin izan du lan. Interes berezia dauka datuen erabileran, bereziki kultura demokrazia, gizakiotan zentratutako diseinu eta enpresa sozialetako antolaketa aldaketari dagokienez. Gai hauetan ohiko hizlari eta iruzkingilea da.

Bere ibilbidean erakundeen garapen programa ugari moldatu ditu, ikus-entzuleak dibertsifikatu eta areagotzeko asmoz, banakako bezeroentzat zein programa finantzatuetan. Berriki From Them To Us lidergo inklusiborako programa egokitu du, beste batzuekin batera, eta publikoen garapenean politika eta bikaintasunari buruzko Europako Batzordearen Publikoak Erakarri azterlanean kontseilari gisa egin du lan. Une honetan programa diseinatzaile burua da bai Audience-Centred Experience Design Blueprint ekimenean, eskala handiko Creative Europe Adeste Plus Project egitasmoan, bai Erasmus Connecting Audiences programan (Goldsmiths University's Institute for Creative & Cultural Entrepreneurship ikastegiarekin batera). Duela gutxitik hona Centre for Cultural Value zentro berriko zuzendarietako bat ere bada, UK Arts & Humanities Research Council kontseiluak sortutakoa Ben Walmsleyekin batera Leedsko Unibertsitatean.

Kunarte

KunArte-k, Berrikuntza Artistiko eta Lehen Haurtzarorako Zentroa, Small Mapping europako proiektuaren eta Small Size nazioarteko elkartearen bazkide gisa, bere proiektuaren parte du Audientzien Laborategia, sortzaileen eta publikoaren arteko erlazioei buruz hausnartzen duena.
Teatro Paraisok, Sorkuntza Zentro honen egitura artistikoaren arduradun gisa, hasieratik publikoa txertatu du garapen motor gisa. Bere ibilbidearen fede eman dezake Kultura Ministerioak emandako Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala-k. Baita unibertsitateetan, kongresuetan eta foro profesionaletan aurkeztutako konferentziek eta hitzaldiek ere.

Kunarte: audientziak elikatzeko COMEX metodologia.

Teatro Paraiso / KunArte-k azken urteetan audientzien garapenerako metodologia propioa garatu du alfabetizazio kulturalarekin eta marketinarekin lotuta dagoena. Metodologia hori, COMEX deitzen dena, esperimentazio eta hausnarketa prozesu luze baten ondorioa da. COMEX-ek janaria gogorarazten du, elkarrekin hazteko audientzia handiak eta txikiak elikatzeko beharra.



FESTIVAL CULTURAL PARTICIPATIVO ⟶ SAN FRANTZISKO. BILBO ZAHARRA. ZABALA

GAU IREKIA

Sarean

Sarean Easo Plaza elkarte kulturalak koordinatutako espazio komunitario kultural bat da. Bere arbasoek 80. hamarkadara itzultzen gaituzte eta San Frantzizko-Bilbo Zaharra-Zabala testuinguruan bertan dauden agente sortzaile eta aldarrikatzaile ugariren arteko komunikazioaren ondorioa da. Sarean-en gune nagusia Mariaren Bihotza Plazako lokal batean kokatuta dago. Topaketa gune bat da non herritarren parte-hartzearen bidez diseinatutako programazio soziokultural bat duen eta baita taberna-jatetxe bat bere eskaintza gastronomikoa kalitatezko, ekologiko eta bertako produktuekin osatua duena.

Nola kontatzen dugu Sarean: Eider Corralekin eta Curruscu-rekin batera prozesua.

2019ko urtarrilean Sarean-en berriro irekiera, proiektuko hainbat puntu birpentsatzeko momentu bikaina izan zen. Komunikazio estrategia eta kontatzeko modua birpentsatzeko beharra hautematen dugu. Prozesu hau martxan jartzeko, Eider Corral diseinatzailearekin lan egitea erabaki genuen. Corral proiektu eta marka kulturaletarako estrategia sortzaileetan espezializatua .Curruscurekin ere lana egin genuen, bideo sozialetan espezializatutako Bilboko estudio bat. Beraiekin erabaki genuen prozesua esperientzia kolektibora irekitzea, egunero espazio honen eraikuntzan laguntzen duten bizilagun, lagun, talde eta elkarteen ahotsekin elikatuz.

Buenawista

Buenawista, irabazi asmorik gabeko elkartea bertako talentua babesteko zerbitzuak eta programak diseinatzen eta kudeatzen dituena. Sektore artistikoa eta sortzailea zailtasunak igarotzen ari delaz kontziente garen talde batez osatua, baita gizarteari eskaintzen dion baloreaz, oinarrizko ekintza ekintzaileenen garapena errazteko lan egiteak motibatzen gaitu. Gure helburua da ekintza sortzailea errotzea eta kalitate handiko ekimen gehiago sortzeko eszena bat sortzea.

"KATAPULTA PLATAFORMA"

"Katapulta Plataforma" Buenawista Prolleckziom's-ek bultzatutako proiektu bat da talentu sortzaileen bilaketarako, garapenerako eta sustapenerako , diziplina ezberdinen arteko eta erakunde publiko eta pribatuen arteko loturetan oinarrituta, gure inguruko sortzaile potentzia garatzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen duen. Euskadirekin erlazionatuta dauden eta ezagunak bihurtzen ari diren pertsona profesionalei edo erdi-profesionalei zuzenduta dago, talentuak beste lurralde batzuetara ihes egitea saihestuz edota, oraindik ere okerragoa dena, talentuen desaktibazioa profesionalizazio perpektiben faltagatik.

Libelista

Liburu denda independenteen etorkizuna kolaborazioan eta talde lanean dago, eta testuinguru horretan jaio da Libelista, sarean dagoen inguru komun bat sortzean gure liburu saltzaileen lan preskribatu garrantzitsua ikusarazi nahi duena, eta, gainera, lehen mailako eCommerce komertzio-tresnak beraien eskuragarri jarri nahi dituena.
Libelista gertuko liburu denden balorea indartu eta handitzeko helburuarekin jaio da, eta liburu saltzaileak beraien online testuinguru irakurlearekin konektatu nahi dugu.

Bibliodibertsitatea.

Liburu denden beraien inguruan eskaintzen dute ordezkaezina den zerbitzu bat: komunitatea sortzen dute eta ehun kulturala bizirik mantentzen dute. Liburu saltzaileek irakurleei bermatu behar diete denda handietan beti ikusgarritasun maila berdina ez duten liburu minoritarioenganako sarrera.
"Bibliodibertsitatearen" azken gotorlekuak dira.
Eta ekimen honek soilik zentzua du irakurle erabiltzaileek, gero eta gehiago daudenak lotuta Internetera, Libelista tresna erabilgarri gisa ikusten badute, beraien interesa harrapatzen badute eta lekuko merkataritzak eskaintzen dituen abantailak utzi gabe liburuak lortzeko aukerera aniztasuna eskaitzen bazaie.

nondik

nondik arkitekturak eta hezkuntzak bat egiten duten espazioa da. Espazioen eta pertsonen bizitza hobetzeko estrategiak garatzen ditu, prozesua proiektu bakoitzaren oinarrizko zatia izanik.

nondik-ek azken emaitzari buruzko aurre ideiarik gabe egiten du lan, proiektuko aldagai bakoitza aukera gisa aztertuz eta benetan garrantzitsuak diren galderak zein diren argituz. Interes horiek proiektu bakoitzerako diziplina arteko egitura aldagarrietatik egiten dira eta azken erabiltzaileak paper garrantzitsua izan ohi dute. Planteamendu horrekin ekintza garatzen da behar honen erabiltzaileak parte hartzaile bihurtuz, proiektuen eta arkitektura-aholkularitzaren bidez parte-hartze prozesuen, behaketen eta arkitektura eta hirien ikasketa-tailerren bidez egiten da.

Sormen ibilbide baten historia.

Konstelazioen mapa batetik abiatuta, nondik saiatuko da audientzia eskutik ematen proiektu bakoitzean marrazten den ibilbidetik diseinu prozesuaren oinarrizko estrategia gisa. Sistema pedagogikoen garapena, edota teknologia geletan txertatzeak, aldaketa horiek izango diren espazioen moldagarritasun behar zehatza sortzen du. Aldi berean, espazioa ikasketa aldaketarako eta berrikuntza pedagogikoa sustatzeko oinarrizko tresna bihurtzen da. Prozesu bat kontatuko da non azken erabiltzaile propioek izango duten arkatza.

Conexiones improbables

Conexiones improbables Berrikuntza Irekiko proiektuak sustatu eta garatzen dituen erakundea da (Open Innovation) Sustapen- eta garapen-lan hori hibridazio-metodologiaren bitartez burutzen du, emaitza ezberdinak lortu ahal izateko enpresa edo erakundeen premiak eta erronkak artista edo sortzaileen sormena eta egiten jakitearekin bateratuz. Inpaktuekin arduratsua den berrikuntza sustatzen du, jasangarria, konprometitua, errotua eta erradikalagoa (Slow Innovation).

Enpresak publiko kultural modura.

Conexiones improbables ekimenari esker, enpresa eta erakundeen beharrizan eta arazo berriei irtenbidea eman ahal zaie, arte eta kultura oinarridun ikuspuntu berri eta alternatibo batekin, berrikuntza eta aholkularitza metodo tradizionalak alde batera utziz.

Moviltik

Erronken konponbideen herritarren ahalbidetzea, kolaborazioa eta parte-hartzea bultzatuko dugu lurraldeak, esperientziak, sentimenduak eta kezkak irudikatzeko euskarri digital berrien erabileraren, zabalkundearen eta sorkuntzaren bidez. Moviltik hizkuntzen zeharkakotasuna eta mugak aztertzen ditu eta komunikazio sozialeko proiektu parte-hartzaileak gauzatzeko eta diseinatzeko teknologia eta narratiben erabilera sozial berria ikertu eta aztertzeko; eta eduki digitalen sorkuntza aldabetizazio mediatiko eta digitaleko prozesuen bidez artikulatzen direnak, begiraden ugaritasunaren bidez elikatutako narratiba eta historiak berriak sortuz.

LOTURAK

"Loturak" mobilizazio eta herritarren hausnarketareko prozesu parte-hartzaile bat da, "Hiri abegitsu" baten dimentsioak eta ezagugarriak elkarrekin sortzeko: Herritarrak sentsibilizatzeko prozesuak eta baliabideak ahalbidetzen dituen hiria, mezuak eta diskurtsoak sortuz pertsona migranteen harrera eta integrazio soziala laguntzeko. Gainerako herritarrei bideratutako sentsibilizazio eta komunikazio sozial ariketa bat gidatzen duen herritarren zatia konpromiso zibikoa indartzeko eta arau testuinguru partekatu bat sortzeko, aniztasun kulturalaren azteketan, berdintasunaren eta ez diskriminatzearen sustapenean oinarritua.

Zawp

Zorrotzaurre Art Work in Progress, ZAWP, 2008an hACERIA arteak elkarte kulturaletik (1997) jaio zen mugimendua da, Zorrotzaurre eta Deustuko Erribera auzoan, hirigintza prozesuaren bitarteari aurre egiteko. Kultura eta sormenaren aldetik, mugimenduan dagoen auzoaren egoeran mugitzen gara. Bizi garen gunearen berreskurapenean, sormenean eta gure historiaren balioaren indartzean lan eginez

LA TERMINAL

ZAWP – LA TERMINALen egoitza berria 2000 m2 baino gehiagoko erakusketa espazio bat da. «Estampaciones y Caldererría» enpresako pabilioi zahar bat erakusketak antolatu eta ekitaldiak, merkatuak, hiri jaialdiak ospatzeko espazio bihurtuta... Zeure ideiak eta/edo proiektuakerakutsi eta merkaturatzeko lekua.



Kultura eta sorkuntza eskaria sustatzeko politika eta praktiken benchmarkinga.
(Getxoko kasuari helduz)

Jarraian aurkeztuko den txostena KARRASKANen eskaera bat da (Euskadin Berrikuntzaren Kultura eta Kulturan Berrikuntza sustatzeko elkarte profesionala), euskal geografian zehar leku desberdinetan eta kultura eta sorkuntzaren sektorerako hainbat gai estrategikoren inguruan urtero antolatzen dituen jardunaldien barruan. Txosten honen helburua arlo horren inguruko hausnarketa sustatzea da, eta, horretarako, tokiko, estatuko zein nazioarteko testuingurutik garatutako ekintza, ikuspegi eta estrategietara gerturatzea proposatzen da.
Azterlan hau KARRASKANen elkartutako hiru entitatek osatu dute (Cultumetria, Kultiba eta Teklak).

CULTUMETRÍA. Neurtzea ez da kontatzea, kontuan hartzea baizik.
Cultumetríak adierazleak diseinatzen ditu eta kultura erakundeen datuak aztertzen ditu eragin kultural, sozial eta ekonomikoa neurtzeko.

KULTIBA. KULTURA ERALDAKETAK
Ikuspegi sistemikotik pertsonak eta erakundeak aholkatu eta laguntzen dituen kultura elkarte bat da. Kulturaren eta balioen zentralitatetik egiten du lan, arazo konplexuen aurrean erantzuna emateko. Helburua pertsonen ikuspegia aldatzen laguntzea da, hala pertsona horiek ekintzak ere alda ditzaten, testuinguruan eragina izan dezaten eta, horrenbestez, esperotako emaitzak izan ditzaten.

TEKLAK .KOMUNIKAZIO ETA AUDIENTZIEN ESTUDIOA.
Haien jardunean sorkuntza, ezagutza eta pentsamendu kritikoa sustatzen duten eragileei laguntzen dien estudioa da Teklak, proiektuak aktibatzen eta finkatzen. Nola egiten du? Hainbat tekla sakatuz: komunikazioari eta publikoak garatzeari lotutako proiektuak aztertuz, sortuz eta lagunduz; lan prozesuak ikus-entzunezko euskarrietan jasotzeko lan eginez; eta finantzaketa pribatu eta publikoa bilatzeko proiektuak prestatzea babestuz.
Bidenabar, Teklaken aipatutako jarduera ildoen inguruko prestakuntza eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dira.

Laguntzaileak.

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA

Getxo
bizi ezazu
Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA